2026DO100010

| | |
|---|---|
| UNITATE SUSTATZAILEA | BERDINTASUNA |
| XEDEA | Emakumeen eta Gizonen berdintasuna bultzatzen duten elkarteentzako dirulaguntzak oinarri arautzaileen eta deialdiaren proposamena egitea |
| TITULARRA | Tolosako Udala |

## ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Berdintasuna Saileko/Azpisaileko Goiuri Ezeiza Arandia zinegotzi delegatuak, Dekretua egin duela, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

LEHENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dagoela: Emakumeen eta Gizonen berdintasuna bultzatzen duten elkarteentzako dirulaguntzak. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 27an (GAO, 7. zk., 2026-02-13).

BIGARRENA.- Berdintasuna Saileko Zinegotzi Delegatuak, Goiuri Ezeiza Arandiak 2026ko urtarrilaren 14an emandako Probidentzian, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna bultzatzen duten elkarteentzako dirulaguntzari buruzko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera ematea agindu zuen

## K O N T U A N  H A R T U R I K

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen duela udalerriko eskumen propioen artean hauek daudela: 27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

BIGARRENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela. Geroztik, bi aldaketa izan ditu, GAO, 68 zk., 2023-01-26an eta GAO, 89 zk., 2024-05-09an.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, (aurrerantzean, DLO) 9.2 artikuluan hauek jasotzen dituela: dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera.

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

Bestalde, 17.2. artikuluan honako hau xedatzen da: toki-korporazioen dirulaguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan onartu beharko dira, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate desberdinetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

Hala ere, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena, beti ere horien indarraldia urtebetekoa bada.

LAUGARRENA.- Era berean, DLO 17.3 artikuluak adierazten duela dirulaguntzak emateko oinarrien arauek, gutxienez, honako alderdi hauek zehaztuko dituztela.

| **Oinarri arautzaileetan txertatutako alderdia (DLO 17.3 art.)** | **Txertatu da (Bai / Ez / Ez dagokio)** |
|---|---|
| a) Dirulaguntzaren xedea. | BAI |
| b) Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak, eta, hala badagokio, onuradunari elkartutakoak edo nortasun juridikorik gabeko taldeek bete beharrekoak | BAI |
| - Deialdiaren laburpena BDNSren bidez argitaratuko den aldizkari ofiziala, deialdiaren testua eta argitaratzeko eskatutako informazioa haren aurrean aurkeztu ondoren | BAI |
| - Eskabideak aurkezteko modua eta epea. | BAI |
| c) Erakunde laguntzaileek bete behar dituzten kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak. | EZ DAGOKIO |
| d) Dirulaguntza emateko prozedura. | BAI |
| e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena | BAI |
| f) Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak. | BAI |
| g) Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea. | BAI |
| h) Dirulaguntzaren justifikazio egokia bermatzeko kontabilitate-liburu eta -erregistro espezifikoak zehaztea, hala badagokio. | BAI |
| i) Onuradunak edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileak dirulaguntza ematea eragin zuen helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua. | BAI |
| j) Hala badagokio, organo emailearen alde eratu beharrekotzat jotzen diren bermeak, eratze-bideak eta ezerezte-prozedura. | BAI |
| k) Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, bai eta, hala badagokio, onuradunek aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere. | BAI |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| l) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, ebazpena aldatu ahal izango da. | BAI |
| m) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna. | BAI |
| n) Dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzen balizko ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak. | |
| o) Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen ala ez adieraztea, eta, bestela, helegite-mota eta zein organori jarri behar zaion adieraztea. | |

BOSGARRENA.- DOOeko 19. artikuluan, honakoa adierazten da: «Oinarri arautzaileak deialdiarekin batera onartu eta argitaratzen badira, **deialdian ez dira sartuko oinarri** horietan arautzen diren edukiak».

SEIGARRENA.- Aurreko puntua kontutan izanda, hauek dira DLOean 23.2 artikuluan **deialdiarentzako** zehazten diren **alderdiak:**

| **Deialdian txertatutako alderdia (DLO 17.3 art.)** | **Txertatu da (Bai / Ez / Ez dagokio)** |
|---|---|
| a) Hala badagokio, oinarri arautzaileak eta zein aldizkari ofizialetan argitaratu diren adierazten duen xedapena, salbu eta, horiek deialdiarekin batera sartzen badira. | BAI |
| b) Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion, eta deialdiko dirulaguntzen zenbateko osoa, erabilgarri dauden kredituen barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia. | BAI |
| c) Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua. | BAI |
| d) Emakida norgehiagoka-araubide baten bidez egiten dela adieraztea. | BAI |
| e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua. | BAI |
| f) Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunen adierazpena. | BAI |
| g) Eskabideak aurkezteko epea. | BAI |
| h) Ebazteko eta jakinarazteko epea. | BAI |
| i) Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioak. | BAI |
| j) Hala badagokio, eskaera birformulatzeko aukera ematea. | BAI |
| k) Eskabideak baloratzeko irizpideak. | BAI |
| l) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea (39/2015 Legea, 40-46 artikuluak). | BAI |
| m) Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen ala ez adieraztea, eta, bestela, helegite-mota eta zein organori jarri behar zaion adieraztea. | BAI |

ZAZPIGARRENA.- Atal horietaz gain, DOOean 19. artikuluan zehazten direnak **gehitu behar dira:**

| **Deialdian txertatutako alderdia (DOO 19. art.)** | **Txertatu da (Bai / Ez / Ez dagokio)** |
|---|---|
| a) Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria. | BAI |
| b) Balorazio-batzordearen osaketa. | BAI |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| c) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak, eta, bere kasuan, irizpide horien haztapena. | BAI |
| d) Hala badagokio, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak baleude baina eskaera horiei erantzuteko nahikoa kreditu ez balego, hauetako aukeraren bat jaso ahal izango da: 1) hurrengo deialdian dirulaguntza jasotzeko lehentasuna eman nahiko balitzaie, dirulaguntza emateko ebazpenak jasoko du bakoitzari emandako puntuazioaren araberako zerrenda ordenatu bat edo 2) deialdian zehaztutako kreditua hainbanatu egingo dela, proiektuen aurrekontuen edo onartutako programen proportzioan. | BAI |
| e) Hala badagokio, ordenantza honetan izaera orokorrez aurreikusitakoez bestelako baldintzetan azpikontratatzeko aukera. | BAI |
| f) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ze portzentaje finantzatu behar duen, dela finantzazio propioaren bidez, dela beste dirulaguntza batzuen bitartez. | BAI |
| g) Ordainketa aurreratuak eta konturako abonuak egiteko aukera. | BAI |
| h) Dirulaguntza bateragarria edo bateraezina den. | BAI |
| i) Justifikatzeko modua eta epea. | BAI |
| j) Proiektuan, aurreikusi gabeko zirkunstantzien ondorioz, aldaketak sartzeko aukerarik ba ote dagoen. | BAI |
| k) Hala badagokio, baldintza hau: Udalaren finantzaketa publikoa jaso duela azaltzea diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi edo grafiko guztietan. | BAI |

ZORTZIGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, **dirulaguntza-**lerro hau **honako arrazoi hauengatik** jotzen dela intereskotzat:

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzaren xedea: | Deialdi honen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten programak, ekintzak eta jarduerak sustatzea da, Tolosako politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizarte esparru guztietan. Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea |
| Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak: | Tolosan elkarte-sarea eta feminista indartzea, hainbat gizarte-sektoretako emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan, haien bizi-baldintza materialak eta generoaren araberako posizio soziala hobetzeko. |
| Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa: | Dirulaguntzak 2024. urtean zehar hainbat proiektu eta jarduera egiteko izango dira, eta duten proiekzio eta interesagatik bat etorriko dira udaleko Berdintasun Sailaren programen helburuekin, hau da berdintasuna bultzatzea Tolosako politikaren, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan, eta informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzea balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| | Erakundearen eraketa-eskrituran edo estatutuetan jasotako helburutako bat izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea. |

BEDERATZIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikulua dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa dela. Zehazki, honako hau jasotzen du: «oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, ordenantza honen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, betiere kalterik egin gabe beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari».

HAMARGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 10.000,00 euroko zenbatekoa finkatu dela, 2026ko udal aurrekontuaren 1400.481.01.231.60 partidan.

HAMAIKAGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren araberako kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea

Halaber, eskumen hori 2023/1718 Alkatetza delegazio dekretuaren bidez, arloko zinegotzi delegatuari dagokio.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

**E B A Z T E N D U**

**LEHENA.-** Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten elkarteentzako dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak eta eranskina onartzea.

| TOLOSAKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE TOLOSA |
|---|---|
| **Oinarri espezifiko arautzaileak dirulaguntza honetarako: Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten elkarteentzako dirulaguntzak.** | **Bases específicas reguladoras de la concesión de subvenciones para Asociaciones que fomenten la igualdad entre mujeres y hombres** |
| **1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa** | **1. Definición del objeto de la subvención** |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Oinarri hauen xedea da arautzea Tolosako politika-, ekonomia- eta gizarte-bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko programak, ekintzak eta jarduerak sustatzeko dirulaguntzak lehia bidezko prozeduraren arabera emateko modua.<br><br>Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea ere bada xedea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea. | Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para promover programas, actos y actividades para la consecución de la igualdad de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica y social de Tolosa.<br><br>Así como apoyar acciones de información, sensibilización, concienciación social y reeducación en valores, actitudes y en definitiva, la transformación de los modelos sociales. |
| **2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea** | **2. Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones** |
| Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2025eko azaroaren 27an (GAOn, argitaratzeko zain). | Esta línea subvencional está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa para el periodo 2026-2028. Dicho Plan fue aprobado por el Pleno el 27 de noviembre de 2025 (pendiente de publicación en el BOG). |
| **3. Entitate onuradunak** | **3. Entidades beneficiarias** |
| Entitate onuradun (aurrerantzean, onuraduna) izan ahalko dira irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeak, baldin eta jarduera Tolosan egiten badute edo jarduera udalerriarentzat interesgarritzat jotzen bada, betiere emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan lan egiten badute, eta oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. | Podrán obtener la condición de Entidad beneficiaria (de aquí en adelante beneficiaria) las asociaciones o entidades sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en Tolosa o que la misma sea considerada de interés para el municipio, siempre que trabajen en el ámbito de la igualdad entre mujeres y hombres, que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases y en la correspondiente convocatoria. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Era berean, Tolosatik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta diruz lagundu nahi den jarduera udalerriaren garatzen bada edo jarduera udalerriarentzat interesgarritzat jotzen bada. | Asimismo, podrán ser beneficiarias de subvención las entidades externas a Tolosa, siempre que la actividad para la que se solicita la subvención se desarrolle en el municipio o que se considere de interés para el mismo.. |
| **4. Entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak** | **4. Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias para la obtención de subvenciones** |
| Hona hemen entitate onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak: | Los requisitos generales que cumplir por las entidades beneficiarias son las siguientes: |
| 1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea. | 1. Estar al corriente en el cumplimento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. |
| 2. Betearazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda. | 2. No mantener deudas o sanciones tributarias en periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Tolosa, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida. |
| 3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean. | 3. No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. |
| 4. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere. | 4. No estar incurso/a en sanción administrativa, laboral o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción, o no estar incurso/a en ninguna prohibición establecida en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en cualquier otra causa estipulada en las normativas aplicables. |
| 5. Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio- egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, | 5. No realizar actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurran otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizartebazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo. | nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa. |
| Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak: | Los requisitos específicos que cumplir por las beneficiarias son los siguientes: |
| 1. Pertsona juridikoei dagokionez, Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du haren xede edo helburu sozialekin. | 1. En el caso de personas jurídicas la actividad subvencionada debe tener cabida dentro del objeto o fines sociales de la misma. |
| 2. Elkarteei dagokienez, Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon behar dute. | 2. En caso de Asociaciones deber estar inscrita en el Registro de Asociaciones. |
| 3. Baldintza hauek betetzeaz gain, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean lan egin beharko dute. | 3. Además de cumplir estos requisitos, deberán trabajar en el ámbito de la igualdad entre mujeres y hombres. |
| **5. Dirulaguntzak emateko prozedura** | **5. Procedimiento de concesión** |
| 1. Lehia bidezko konkurrentziazko prozedura erabiliko da dirulaguntzak emateko, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez. | 1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único. |
| 2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. | 2. El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en la Base Nacional de Subvenciones, así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |
| 3. Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetako 13. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak. | 3. Mediante este procedimiento, la concesión de subvenciones se realiza evaluando las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios establecidos en el art. 13 de las presentes bases. |
| **6. Diruz lagun daitezkeen gastuak** | **6. Gastos subvencionables** |
| 1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen | 1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, se realicen dentro del plazo establecido en la |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea. | convocatoria, cuyo valor de adquisición no supere el valor de mercado y sean efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del plazo de justificación. |
| 2. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak: | 2. Los gastos subvencionables son los siguientes: |
| Finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioko espezifikoak beti ere diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira. | Los gastos de asesoria juridica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realizacion del proyecto subvencionado y los de administracion especificos siempre y que estén directamente relacionados con la actividad subvencionada y sean indispensables para la adecuada preparacion o ejecucion de la misma. |
| Eskaria egin duen erakundeko mantentze-gastuak ordaintzeko; besteak beste: bulego materiala, bulegoko tresneria eta abar. | Financiación de los gastos de mantenimiento de la entidad solicitante. Entre otros: material o equipamiento de oficina, etc. |
| 3. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa, obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), edo aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan 15.000tik gorakoa bada (BEZa sartu gabe), onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzaileri, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea. | 3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros (IVA excluido) en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 15.000 euros (IVA excluido) en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención y así se acredite documentalmente. |
| 4. Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori. | 4. La elección entre las ofertas presentadas, que deberá aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| **7. Onuradunak diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea** | **7. Subcontratación de las actividades subvencionadas por la beneficiaria** |
| 1. Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du dirulaguntzaren xede den jarduera. | 1. La beneficiaria podrá subcontratar con terceros la ejecución de la actividad que constituye el objeto de subvención. |
| 2. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa % 50 izango da. | 2. El porcentaje máximo de subcontratación de las actividades subvencionadas será del 50%. |
| 3. Ezin da azpikontratatu diruz laguntzen den jardueraren kostua handitzen duen jarduerarik, baldin eta ez badio haren edukiari baliorik eransten. | 3. No podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma. |
| 4. Azpikontratatutako jarduera dirulaguntzaren % 20tik gorakoa eta 60.000,00 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz egin beharko da, betiere Tolosako Udalak aldez aurretik eta berariaz horretarako baimena ematen badu. | 4. Cuando la actividad subcontratada exceda del 20 % del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, el contrato deberá realizarse por escrito, siempre y que exista autorización previa y expresa del Ayuntamiento de Tolosa para su ejecución. |
| **8. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua** | **8. Forma y lugar de presentación de solicitudes** |
| Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira. | 1. Las presentes bases y la convocatoria serán publicadas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG). |
| 2. Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez. | 2. En el caso de las personas jurídicas, entidades sin personalidad jurídica y otras especificadas en los artículos 14.2 y 14.3 de Ley 39/2015, 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas deberán presentar sus solicitudes por vía telemática a través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Tolosa. |
| **9. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa** | **9. Documentación a acompañar a la solicitud** |
| 1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta eskura daiteke:<br><br>https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do | 1. Impreso de solicitud normalizado facilitado por el Ayuntamiento, accediendo a la Sede Electrónica, y después, a la línea de subvención correspondiente:<br><br>https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du. | Deberá estar firmado por la persona que tenga la capacidad legal para representar a la entidad solicitante. |
| Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:<br><br>a) Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena. | En el mismo, se indicarán los siguientes aspectos:<br>a) Declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la normativa aplicable. |
| a) Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko diren beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak. | b) Declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otras áreas, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas para la misma actividad o finalidad. |
| 2. Ordezkaritza agiria, hala badagokio. | 2. Documento de representación, en su caso. |
| 3. Jarduera-proiektua edo programa, besteak beste honako hauek adierazita: | 3. Proyecto de actividad o programa, en el cual, se indicarán, entre otros, los siguientes aspectos: |
| a) Jardueraren hedapenerako euskararentzat aurreikusitako tratamendua. | a) Tratamiento del euskera previsto en la difusión de la actividad. |
| b) Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersekzionalaren tratamendua proiektuan, eta berdintasun-helburuen presentzia, aldez aurreko egoera diferentzialaren arabera, hala badagokio. | b) Tratamiento de la perspectiva de género e interseccional en el proyecto y presencia de objetivos de igualdad, en función de la situación diferencial previa, en su caso. |
| 4. Jarduerak/programak izango dituen gastu eta diru-sarreren aurreikuspena. | 4. Presupuesto de gastos e ingresos de la actividad / programa. |
| Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada: | En caso de oposición a la consulta de documentos: |
| 1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria. | 1. Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social. |
| 7. Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria. | 7. Certificado de la titularidad de la cuenta corriente. |
| **10. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria** | **10. Documentación interoperable y verificable** |
| Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du | La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko. | artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que ya se encuentren en poder del Ayuntamiento de Tolosa. |
| Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikuluaren arabera, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu. | A estos efectos, la persona o entidad interesada deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, siempre y que no hayan transcurrido más de 5 años desde la finalización el procedimiento al que correspondan, de acuerdo al artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, debiendo ser recabados por el órgano instructor, salvo que conste en el procedimiento la oposición expresa de la persona/entidad o la ley especial aplicable requiera su consentimiento expreso. |
| Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administraziok eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen. | A su vez, se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración. De tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones. |
| Pertsona/entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak. | Las personas/entidades solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación. |
| Ildo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez: | En este sentido, los requisitos que se verificarán para esta línea de subvención a través de las plataformas corporativas, de intermediación NISAE o acceso público serán los siguientes: |
| - Identitate-datuak kontsultatzea Poliziaren Zuzendaritza Nagusian | - Consulta de datos de identidad a la Dirección General de Policía |
| - Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari | - Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria. | |
| - IGAEri BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria. | - Certificado de inhabilitaciones para obtener subvenciones y ayudas de BDNS al IGAE. |
| - Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria. | - Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa. |
| - Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria. | - Certificado de la titularidad de la cuenta corriente. |
| Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona/entitate eskatzaileari aurkez ditzala. | Excepcionalmente, si el órgano instructor no pudiera recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente a la solicitante su aportación. |
| Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia. | En última instancia, el órgano competente responsable de instruir y resolver el procedimiento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada. |
| Tolosako Udalak datu pertsonalen tratamendua egitea legitimatuta geratzen da interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzean edo Udalari berari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. | El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de Tolosa queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento en los términos previstos en el artículo 6.1. e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. |
| **11. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria** | **11. Subsanación de errores y documentación complementaria** |
| Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio ezen, eskatutakoa egiten ez badu, ulertuko dela eskaeran atzera egin duela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 | Si la solicitud de iniciación no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane la falta o presente los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. | |
| **12.- Balorazio-irizpideak eta puntuazioak** | **12.- Criterios de valoración y puntuaciones** |
| Proiektuek, gehienez, 100 puntu eskuratu ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera:<br>1.- Proiektuaren kalitate teknikoa. 49 puntu.<br>2.- Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea: gehienez, 12 puntu.<br>3.- Elkarteen historia, ibilbidea eta esperientzia: gehienez, 8 puntu.<br>4.- Tolosan askotariko emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzea. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzeari dagozkion puntuazioak metagarriak izango dira, gehienez 10 puntura arte.<br>5.- Ikuspegi intersekzionala txertatzea: gehienez, 5 puntu.<br>6.- Zaintza-erantzukizunei buruzko neurriak, bizitza, familia, lana eta familia uztartzeko: gehienez, 8 puntu.<br>7.- Euskararen normalizaziorako irizpideak: gehienez 8 puntu. | Los proyectos serán valorados con un máximo de 100 puntos, conforme a los siguientes criterios:<br>1.- Calidad técnica del proyecto. 49 puntos.<br>2.- Incorporación de la perspectiva de género en el proyecto: hasta 12 puntos.<br>3.- Historial, recorrido y experiencia de las asociaciones: hasta 8 puntos.<br>4.- Favorecer e impulsar en Tolosa el empoderamiento individual y colectivo de diversas mujeres. Las puntuaciones correspondientes a la promoción del empoderamiento individual y colectivo serán acumulables hasta un máximo de 10 puntos.<br>5.- Incorporación de la perspectiva interseccional: hasta 5 puntos.<br>6.- Medidas sobre las responsabilidades de cuidados, para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y familiar: hasta 8 puntos.<br>7.- Criterios de normalización del euskera hasta 8 puntos. |
| **13.- Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak** | **13.- Criterios para determinar la cuantía individualizada de la subvención** |
| **1.- Proiektuaren kalitate teknikoa. 49 puntu.**<br>1.1.- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa: gehienez, 21 puntu.<br>1.1.1.- Proiektuaren garrantzia ulertzeko esparru historiko, sozial eta ekonomiko bat deskribatzea: gehienez, 6 puntu.<br>Esparru historiko, sozial eta ekonomikoa deskribatu ditu: 6 puntu. | **1.- Calidad técnica del proyecto. 49 puntos.**<br>1.1- Contextualización y justificación del proyecto: hasta 21 puntos.<br>1.1.1.-Descripción un marco histórico, social y económico para entender la relevancia del proyecto: hasta 6 puntos.<br>Describe el marco histórico, social y económico: 6 puntos. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Esparru historikoa deskribatu du: 2 puntu.<br><br>Esparru soziala deskribatu du: 2 puntu.<br><br>Esparru ekonomikoa deskribatu du: 2 puntu.<br>Ez du markorik deskribatu: 0 puntu. | Describe el marco histórico: 2 puntos.<br><br>Describe el marco social: 2 puntos.<br><br>Describe el marco económico: 2 puntos.<br><br>No describe ningún marco: 0 puntos. |
| 1.1.2.- Adierazi ditu proiektua egiteko arrazoiak, dakartzan onurak eta nori zuzenduta dagoen: gehienez, 3 puntu.<br><br>Arrazoiak eman ditu: 1 puntu.<br><br>Dakartzan onurak formulatu ditu: 1 puntu.<br><br>Nori zuzenduta dagoen adierazi du: 1 puntu.<br><br>Ez du formulatu: 0 puntu. | 1.1.2.- Formula los motivos por los que se realiza el proyecto, los beneficios que aporta y a quien va dirigido: hasta 3 puntos.<br><br>Formula los motivos: 1 punto.<br><br>Formula los beneficios que aporta: 1 punto.<br><br>Formula a quien va dirigido: 1 punto.<br><br>No formula: 0 puntos. |
| 1.1.3.- Emakumeen eta gizonen desberdintasunak, beharrak eta interesak identifikatu ditu: gehienez, 6 puntu.<br><br>Desberdintasunak, beharrak eta interesak identifikatu ditu: 6 puntu.<br><br>Desberdintasunak identifikatu ditu: 2 puntu.<br><br>Beharrak identifikatu ditu: 2 puntu.<br><br>Interesak identifikatu ditu: 2 puntu.<br><br>Ez du dimentsio bakar bat ere identifikatu: 0 puntu. | 1.1.3 Identifica las desigualdades, las necesidades y los intereses de mujeres y hombres: hasta 6 puntos.<br><br>Identifica las desigualdades, las necesidades y los intereses: 6 puntos.<br><br>Identifica las desigualdades: 2 puntos.<br><br>Identifica las necesidades: 2 puntos.<br><br>Identifica los intereses: 2 puntos.<br><br>No identifica ninguna dimensión: 0 puntos. |
| 1.1.4.- Proiektuan parte hartzen duten pertsonen sexuaren arabera bereizi ditu datuak: 2 puntu. | 1.1.4.- Desagrega los datos en función del sexo de las personas que participan en el proyecto: 2 puntos. |
| 1.1.5.- Proiektuan inplikatutako pertsonek berdintasunean duten esperientzia eta prestakuntza egiaztatu ditu: gehienez,<br>4 puntu. | 1.1.5.- Acredita la experiencia y formación en igualdad de las personas implicadas en el proyecto: hasta 4 puntos |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Puntu 1 aurkezten duen esperientziaren edo prestakuntzaren titulazio bakoitzeko, hori bermatzen duen ziurtagiri batekin. | 1 punto por cada titulación de la experiencia o formación que presenta, con un certificado que lo avale. |
| **1.2.- Helburuen, aurreikusitako jardueren eta espero diren emaitzen definizioa: gehienez, 8 puntu.** | **1.2.- Definición de los objetivos, las actividades previstas y los resultados esperados: hasta 8 puntos.** |
| 1.2.1.- Helburuak bat datoz proiektuan aurkezten denarekin: 2 puntu..<br><br>Bat datoz: 2 puntu.<br><br>Ez datoz bat: 0 puntu. | 1.2.1.- Los objetivos son coherentes con lo que presenta en el proyecto: 2 puntos.<br><br>Son coherentes: 2 puntos.<br><br>No son coherentes: 0 puntos. |
| 1.2.2.- Estrategia eraginkorrak proposatu dituzte: gehienez, 2 puntu.<br><br>Estrategiak proposatu dituzte: 2 puntu.<br><br>Neurri batean, estrategia eraginkorrak proposatu dituzte: puntu 1.<br><br>Ez dute estrategia eraginkorrik proposatu: 0 puntu. | 1.2.2.- Proponen estrategias efectivas: hasta dos 2 puntos.<br><br>Proponen estrategias: 2 puntos.<br><br>En cierta medida, proponen estrategias efectivas: 1 punto.<br><br>No proponen estrategias efectivas:0 puntos. |
| 1.2.3.- Jardueren garapena, deskribatutako helburuei dagokienez: gehienez, 4 puntu.<br><br>1 puntu deskribatutako jarduera bakoitzeko.<br><br>0 puntu jarduerarik deskribatzen ez bada. | 1.2.3.- Desarrollo de las actividades en relación con los objetivos descritos: hasta 4 puntos.<br><br>1 punto por cada actividad descrita.<br><br>0 puntos si no se describe ninguna actividad. |
| **1.3.- Metodologia eta lan-prozesua: gehienez, 13 puntu.** | **1.3.- Metodología y proceso de trabajo: hasta 13 puntos** |
| 1.3.1.- Metodologiaren egokitasuna helburuak lortzeko: gehienez, 3 puntu.<br><br>Egokia da helburuak lortzeko: 3 puntu.<br><br>Nahiko egokia: 1 puntu.<br><br>Ez da egokia. 0 puntu. | 1.3.1.- Pertinencia de la metodología para lograr los objetivos: hasta 3 puntos<br><br>Pertinente para lograr los objetivos: 3 puntos.<br><br>Relativamente pertinente para lograr los objetivos. 1 punto.<br><br>No es pertinente. 0 puntos. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| 1.3.2.- Proiektua garatzeko egitura eta faseak definitu ditu: gehienez, 4 puntu.<br><br>Egitura eta faseak definitu ditu: 4 puntu.<br><br>Egitura bakarrik definitu du: 2 puntu.<br><br>Faseak bakarrik definitu ditu: 2 puntu.<br><br>Ez du zehaztu: 0 puntu. | 1.3.2.- Define la estructura y las fases en las que se desarrolla el proyecto: hasta 4 puntos.<br><br>Define la estructura y las fases: 4 puntos.<br><br>Define sólo la estructura: 2 puntos.<br><br>Define sólo las fases: 2 puntos.<br><br>No define: 0 puntos. |
| 1.3.3.- Tresnak eta erabili beharreko baliabideak deskribatu ditu: gehienez, 3 puntu.<br><br>Tresnak eta baliabideak: 3 puntu.<br><br>Erremintak bakarrik: 1 puntu.<br><br>Baliabideak soilik: 1 puntu.<br><br>Ez du ezer deskribatzen: 0 puntu. | 1.3.3.- Describe las herramientas y los recursos a utilizar: hasta 3 puntos.<br><br>Herramientas y recursos: 3 puntos.<br><br>Sólo herramientas: 1 punto.<br><br>Sólo recursos: 1 punto.<br><br>No describe nada: 0 puntos. |
| 1.3.4.- Kronograma aurkeztu du: proiektuaren eta aurkeztutako kronogramaren arteko koherentzia: 3 puntu.<br><br>Proiektuarekin koherentea da: 3 puntu.<br><br>Koherentziarik ez: 0 puntu. | 1.3.4.- Presenta cronograma: coherencia del proyecto con el cronograma presentado: 3 puntos.<br><br>Coherencia con el proyecto: 3 puntos.<br><br>No presenta coherencia: 0 puntos. |
| 1.4.- Jarraipen- eta ebaluazio-sistema: gehienez, 7 puntu<br><br>Proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema baloratuko da, eta hor sartuko dira adierazle kualitatiboak (pertzepzioak, jarrerak, parte-hartzaileen harremanen kalitatea, esperientziak eta gogobetetzeak, parte-hartze maila, ikaskuntzak eta pertzepzioen aldaketa) eta/edo kuantitatiboak (proiektua gauzatzeko kontratatutako pertsonen eta boluntarioen kopurua; proiektuaren onuradunen kopurua; egindako tailerren eta jardueren kopurua; jasotako finantzaketaren kostu osoa). | 1.4.- Sistema de seguimiento y evaluación: hasta 7 puntos.<br><br>Se valorará el sistema de seguimiento y evaluación del proyecto, incluyendo indicadores cualitativos (percepciones, actitudes, calidad de las relaciones de las personas participantes, experiencias y satisfacción, grado de participación, aprendizajes y cambio en las percepciones) y/o cuantitativos (número de personas contratadas y voluntarias para la ejecución del proyecto; número de personas beneficiarias del proyecto; número de talleres y actividades realizadas; coste total de la financiación recibida). |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak jasotzen dituen jarraipen- eta ebaluazio-sistema aurkeztu du: 7 puntu.<br><br>Adierazle kualitatiboak edo kuantitatiboak soilik jasotzen dituen sistema aurkeztu du: 4 puntu.<br><br>Adierazlerik gabeko jarraipen- eta ebaluazio-sistema aurkeztu du: 3 puntu.<br><br>Ez du jarraipen- eta ebaluazio-sistemarik aurkeztu: 0 puntu. | Presenta un sistema de seguimiento y evaluación con indicadores cualitativos y cuantitativos: 7 puntos.<br><br>Presenta un sistema que recoge únicamente indicadores cualitativos o cuantitativos, 4 puntos.<br><br>Presenta un sistema de seguimiento y evaluación sin indicadores, 3 puntos.<br><br>No presenta sistema de seguimiento y evaluación: 0 puntos. |
| **2.- Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea: gehienez, 12 puntu.**<br><br>2.1.- Genero-ikuspegia txertatu du proiektuaren testuinguruan eta justifikazioan: gehienez, 3 puntu.<br><br>2.1.1.- Genero-ikuspegia txertatu du: 3 puntu.<br><br>2.1.2.- Ez du genero-ikuspegia txertatu: 0 puntu.<br><br>2.2.- Genero-ikuspegia txertatu du proiektuaren helburu, jarduera eta emaitzetan: gehienez, 3 puntu.<br><br>2.2.1.-Helburuetan eta jardueretan genero-ikuspegia txertatu du: 3 puntu.<br><br>2.2.2.- Helburuetan genero-ikuspegia txertatu du: 1,5 puntu.<br><br>2.2.3.- Jardueretan genero-ikuspegia txertatu du: 1,5, puntu.<br><br>2.2.4.- Ez du txertatu: 0 puntu.<br><br>2.3.- Genero-ikuspegia txertatu du proiektuaren metodologian: gehienez, 3 puntu. | **2.- Incorporación de la perspectiva de género en el proyecto: hasta 12 puntos.**<br><br>2.1.- Introduce la perspectiva de género en la contextualización y justificación del proyecto: hasta 3 puntos.<br>.<br>2.1.1.- Introduce la perspectiva de género: 3 puntos<br><br>2.1.2.- No introduce la perspectiva de género: 0 puntos.<br><br>2.2.- Introduce la perspectiva de género en los objetivos, actividades del proyecto: 3 puntos.<br><br>2.2.1.- Introduce la perspectiva de género en los objetivos y en las actividades: 3 puntos.<br><br>2.2.2.- Introduce la perspectiva de género en los objetivos: 1,5 puntos.<br><br>2.2.3.- Introduce la perspectiva de género en las actividades: 1,5 puntos.<br><br>2.2.4.- No introduce: 0 puntos.<br><br>2.3.- Introduce la perspectiva de género en la metodología del proyecto: hasta 3 puntos. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Metodologian genero- ikuspegia txertatu du: 3 puntu.<br><br>Ez du sartu: 0 puntu.<br><br>2.4.- Genero-ikuspegia txertatu du proiektuaren jarraipenean eta ebaluazioan: gehienez, 3 puntu.<br><br>2.4.1.- Jarraipenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatu du: 3 puntu.<br><br>2.4.2.- Ez du sartu: 0 puntu. | Introduce la perspectiva en la metodología: 3 puntos<br><br>No introduce: 0 puntos.<br><br>2.4.- Introduce la perspectiva de género en el seguimiento y evaluación del proyecto: hasta 3 puntos.<br><br>2.4.1.-Introduce la perspectiva de género en el seguimiento y evaluación: 3 puntos.<br><br>2.4.2.- No introduce: 0 puntos. |
| **3.- Elkarteen historia, ibilbidea eta esperientzia: gehienez, 8 puntu**.<br><br>3.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea jasota dago erakundearen eratze-eskrituran edo estatutuetan jasotako helburuetan: 2 puntu.<br><br>3.2.- Elkartearen eragina: Tolosan antolatzen dituen ekitaldi eta jarduerak: 2 puntu.<br><br>3.3.- Elkarteak sare sozialak eta prentsa erabiltzea bere proiektuak eta jarduerak zabaltzeko: 2 puntu.<br><br>3.4.- Talde feministen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako sareak sortzea: 2 puntu. | **3.- Historial, recorrido y experiencia de las asociaciones: hasta 8 puntos**<br><br>3.1.- La promoción de la igualdad entre mujeres y hombres constituye uno de los objetivos recogidos en la escritura fundacional o en los estatutos de la entidad: 2 puntos.<br><br>3.2.- Repercusión de la asociación: eventos y actividades que organiza en Tolosa: 2 puntos.<br><br>3.3.- Utilización de la asociación de las redes sociales y prensa para la divulgación de sus proyectos y actividades: 2 puntos.<br><br>3.4.- Creación de redes para la cooperación y coordinación entre los grupos feministas: 2 puntos. |
| **4.- Tolosan askotariko emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzea. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzeari dagozkion puntuazioak metagarriak izango dira, gehienez 10 puntura arte.**<br><br>Deskribatzen diren jarduketek ahalduntze indibiduala sustatzen badute: autoezagutzarako eta prestakuntzarako topaguneak programatzea autonomia fisikoa, gorputzekoa, afektibo-sexuala, | **4.- Favorecer e impulsar en Tolosa el empoderamiento individual y colectivo de mujeres diversas. Las puntuaciones correspondientes a la promoción del empoderamiento individual y colectivo serán acumulables hasta un máximo de 10 puntos.**<br><br>Si las actuaciones que se describen potencian el empoderamiento individual: programar espacios de encuentro para el autoconocimiento y formación para fomentar la autonomía física, corporal, |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| ekonomikoa eta lanekoa sustatzeko: gehienez, 5 puntu.<br><br>Autoezagutzarako eta prestakuntzarako 3 elkargune edo gehiago programatzea: 5 puntu.<br><br>Autoezagutzarako eta prestakuntzarako bi topagune edo prestakuntza programatzea: 3 puntu.<br><br>Autoezagutzarako eta prestakuntzarako topagune edo prestakuntza 1 programatzea: 2 puntu.<br><br>Topagune edo prestakuntzarik ez programatzea: 0 puntu.<br><br>Eta/edo ahalduntze kolektiboa sustatzen dute: emakumeen askotariko jarduerak antolatzeko eta elkartzeko espazioak programatzea eta sarean lan egitea, emakumeek udalerrian duten partaidetza soziopolitikoan eragiteko: gehienez, 5 puntu.<br><br>Hiru topagune edo gehiago programatzea eta jarduera kolektiboak antolatzea: 5 puntu.<br><br>Jarduera kolektiboak antolatzeko, eta elkartzeko 2 gune programatzea: 3 puntu.<br><br>Elkartzeko eta jarduera kolektiboak antolatzeko gune 1 programatzea: 2 puntu<br><br>Elkartzeko eta jarduera kolektiboak antolatzeko gunerik ez programatzea. 0 puntu. | afectivo-sexual, económica y laboral: hasta 5 puntos.<br><br>Programar 3 o más puntos de encuentro para el autoconocimiento y formación: 5 puntos.<br><br>Programar dos espacios o formaciones para el autoconocimiento y formación: 3 puntos.<br><br>Programar 1 espacio o formación para el autoconocimiento y formación: 2 puntos.<br><br>No programar espacio o formación: 0 puntos.<br><br>Y/o favorecen el empoderamiento colectivo: programar espacios de encuentro y organización de actividades de mujeres diversas, y trabajar en red, con el objetivo de incidir en la participación socio-política de las mujeres en el municipio: hasta 5 puntos.<br><br>Programar tres o más espacios de encuentro y organización de actividades colectivas: 5 puntos.<br><br>Programar 2 espacios de encuentro y organización de actividades colectivas: 3 puntos.<br><br>Programar 1 espacio de encuentro y organización de actividades colectivas: 2 puntos<br><br>No programar espacios de encuentro y organización de actividades colectivas: 0 puntos. |
| **5.- Ikuspegi intersekzionala txertatzea: gehienez, 5 puntu**<br><br>Intersekzionalitatea kontuan hartzen duen proiektua, honako aldagai hauek sartuta: adina, sexu- eta genero-identitatea, migrazioa, dibertsitate funtzionala, pobrezia edo gizarte-bazterkeria eta abar. | **5.- Incorporación de la perspectiva interseccional: hasta 5 puntos**<br><br>Proyecto que tenga en cuenta la interseccionalidad, incluyendo variables como la edad, identidad sexual y de género, migración, diversidad funcional, pobreza o exclusión social, etc. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| 4 aldagai sartzea: 5 puntu.<br><br>3 aldagai sartzea: 3 puntu.<br><br>2 aldagai sartzea: 2 puntu<br><br>1 aldagai sartzea: 1 puntu<br><br>Ez du aldagairik sartu: 0 puntu. | Incorpora 4 variables. 5 puntos.<br><br>Incorpora 3 variables: 3 puntos.<br><br>Incorpora 2 variables: 2 puntos.<br><br>Incorpora 1 variable: 1 punto.<br><br>No incorpora ninguna variable: 0 puntos. |
| **6.- Zaintza-erantzukizunei buruzko neurriak, bizitza pertsonala, familia, lana eta familia uztartzeko: gehienez, 8 puntu.**<br><br>6.1.- Proiektuan edo jardueran parte hartzen duten pertsonen ordutegia kontuan hartu da: 2 puntu.<br><br>6.2.- Haurtzaindegi-zerbitzua eskaini da proiektua edo jarduera garatzeko: 2 puntu.<br><br>6.3.- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu bat eskaini da proiektua edo jarduera garatzeko: 2 puntu.<br><br>6.4.- Proiektua edo jarduera garatzeko beste neurri bat aurkeztu da: 2 puntu.<br><br>6.5.- Ez dute kontziliazio-neurririk aurkeztu: 0 puntu. | **6.- Medidas sobre las responsabilidades de cuidados, para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y familiar: hasta 8 puntos.**<br><br>6.1.- Se tiene en cuenta el horario de las personas que participan en el proyecto o actividad: 2 puntos.<br><br>6.2.- Se ofrece un servicio de guardería para el desarrollo del proyecto o actividad: 2 puntos.<br><br>6.3.- Se ofrece un servicio para las personas en situación de dependencia para el desarrollo del proyecto o actividad: 2 puntos.<br><br>6.4.- Se presenta otra medida para el desarrollo del proyecto o actividad: 2 puntos.<br><br>6.5.- No presentan medidas de conciliación: 0 puntos. |
| **7.- Euskararen normalizaziorako irizpideak: gehienez 8 puntu.**<br><br>Euskararen normalizaziorako irizpideak kontuan hartu izana.<br><br>7.1.- Proiektua euskaraz aurkeztea: 2 puntu.<br><br>7.2- Proiektua euskaraz garatzea: 6 puntu. | **7.- Criterios de normalización del euskera hasta 8 puntos.**<br><br>Haber tenido en cuenta los criterios de normalización del euskera.<br><br>7.1.- Presentar el proyecto en euskera: 2 puntos<br><br>7.2.- Desarrollar el proyecto en euskera: 6 puntos. |
| Aurkeztutako proiektuei dagokien zenbatekoa deialdirako erabilgarri dagoen kreditua baino handiagoa bada, onartutako eskaera guztien artean hainbanatuko da. | En el supuesto de que el importe correspondiente a los proyectos presentados exceda del crédito disponible para la convocatoria, se procederá al |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| | prorrateo entre todas las solicitudes admitidas. |
| Puntuaren balioa zehazteko, eragiketa hau egingo da: atal honetako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa zati onartutako eskaera guztiei esleitutako puntu kopurua. Dirulaguntza eskaera bakoitzak eskuratutako puntuen batura izango da, lehen aipatutako mugak kontuan izanda. | Para determinar el valor del punto se dividirá el montante global de las subvenciones de este apartado por el número de puntos asignados a todas las solicitudes admitidas. La subvención será la suma de los puntos obtenidos por cada solicitud teniendo en cuenta los límites anteriores. |
| Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, aurkeztutako aurrekontuaren defizita hartuko da aintzat. | A su vez, para establecer la cuantía de la subvención se tendrá en cuenta el déficit del presupuesto presentado |
| Proiektu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da 2.500,00 eurotik gorakoa izan. | La cuantía de la subvención por proyecto no podrá superar los 2.500,00 euros. |
| **14. Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak** | **14. Obligaciones y compromisos de las personas/entidades beneficiarias** |
| 1. Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da. | 1. Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada. |
| 2. Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da. Ezingo da irudi diskriminatzaile edo genero-estereotipotik erabili, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatu beharko da. | 2.Emplear un uso no sexista del lenguaje, en la documentación, publicidad, imagen o materiales generados en el marco de la actividad subvencionada, evitándose cualquier imagen discriminatoria o estereotipos de género, y se fomentará una imagen con valores de igualdad, diversidad e inclusión. |
| 3. Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari. | 3.Comunicar al órgano concedente o la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| 4. Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein. | 4.En general, cualquiera otra recogida por la normativa reguladora de subvenciones. |
| **15. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa** | **15. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales** |
| 1. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena. | 1. Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes. |
| 2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere. | 2. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos supere el coste de la actividad subvencionada. |
| 3. Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da. | 3. Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto subvencionado. |
| 4. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzen bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio. | 4. Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación. |
| Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino. | No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo. |
| **16. Dirulaguntza ordaintzea** | **16. Abono de la subvención** |
| 1. Ordainketa aurreratua egin ahal izango da, baldin eta interesdunak eskaera-orrian hala eskatzen badu, eta betiere, justifikatzen badu behar duela | 1. Podrá realizarse pago anticipado, si así lo solicita la parte interesada en el impreso de solicitud, siempre y cuando justifique que dicha financiación es |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| finantzaketa hori proposatutako jarduerak egiteko. | necesaria para llevar a cabo las actividades propuestas. |
| 2. Dirulaguntzaren % 75 ematen den unean ordainduko da. Gainerako % 25a ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartzen duenean betiere. | 2. El 75 % de la subvención concedida se hará efectivo en el momento de la concesión. El 25% restante se abonará previa justificación y, siempre y cuando sea aceptada por el órgano competente. |
| 3. Organo eskudunak, dirulaguntza justifikatzeko fasean, aurrerakin gisa jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzultzea erabakitzen badu, itzuli beharreko zenbatekoari dagokion berandutze-interesa gehituko zaio, jasotako zenbatekoen itzulketa eta berandutze-interesa barne, dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, data hori lehenagokoa bada. | 3. En los casos en que el órgano competente, en la fase de justificación de la subvención, acuerde la devolución total o parcial de la cantidad percibida en concepto de anticipo, la cantidad a reintegrar se incrementará en el interés de demora correspondiente, incluyendo el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, o hasta la fecha en que el deudor ingrese el reintegro si ésta fuera anterior. |
| **17. Dirulaguntzaren justifikazioa** | **17. Justificación de la subvención** |
| 1. Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere. | 1. La beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los gastos generados por dicha actividad. |
| 2. Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU07112883 | 2.Los documentos que sirvan para la justificación pueden obtenerse en la sede electrónica del Ayuntamiento, entrando en la línea subvencional correspondiente: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU07112883 |
| 3. Dokumentu hauek aurkeztu behar dira 2027ko urtarrilaren 31baino lehen: | 3. La documentación por presentar antes del 31 de enero de 2027 será la siguiente: |
| a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. | a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak. | De acuerdo con el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en la memoria se presentará la información desagregada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado, de las personas titulares y trabajadoras, y del personal contratado por la entidad para la prestación del servicio para el que se solicita la subvención. |
| Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta. | En la memoria deberá constar expresamente que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención y, en su caso, una evaluación de los resultados obtenidos respecto a los previstos. |
| b) GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinadurarik gabe. | b) El documento GAS (disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento), que contendrá una relación clasificada de gastos e inversiones, con identificación del acreedor y del documento, su importe y las fechas de emisión y de pago. El documento deberá presentarse en el formato de origen (xls.) sin firma alguna. |
| Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da. | Cuando se hubieren utilizado más de una fuente de financiación, se indicará el porcentaje correspondiente financiado por el Ayuntamiento de Tolosa en relación a ese gasto. |
| Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita. | Cuando la subvención se conceda con arreglo a un presupuesto estimado, la relación de gastos e inversiones se clasificará también en función de las partidas del proyecto o actividad subvencionada, con indicación de las desviaciones producidas. |
| Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du. | El importe total de gasto deberá reflejar el coste total del proyecto o actuación subvencionada. |
| c) BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri). Diruz | c) El documento BAL (disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento), |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da Entitate onuraduneko presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du. | que contendrá una relación de gastos e ingresos de la actividad o proyecto subvencionado, que deberá recogerse según el modelo propuesto. Deberá firmarlo el/la presidente/a o secretario/a de la entidad beneficiaria. |
| GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin. | Los importes de gasto del documento GAS deberá coincidir con los importes de gasto del documento BAL. |
| d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita. | d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. |
| e) Hiru hornitzaileri eskatutako hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu. Hau da salbuespena: ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez egotea horiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egitea. Inguruabar horiek behar bezala justifikatu beharko dira. | e) Los tres presupuestos solicitados a diferentes proveedores, cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, extremos que deberán justificarse fehacientemente. |
| f) Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak, aurreko b) letran aipatzen den zerrendan eskumena duen organoak berariaz eskatutakoak. | f) Las facturas y los restantes documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, requeridos de manera expresa por el órgano competente en la relación a la que se hace referencia en el número b) anterior. |
| g) Dokumentazio horren ordainketen egiaztagiriak. | g) La documentación acreditativa de los pagos de dicha documentación. |
| Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada: | En caso de oposición a la consulta de documentos: |
| h) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria. | h) Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social. |
| i) Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria. | j) Certificado de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento de Tolosa. |
| **18. Dirulaguntza aldatzea** | **18. Modificación de la subvención** |
| Dirulaguntza emateko ebazpena edo erabakia, onuradunak eskatuta, aldatu egin ahal izango da, baldin eta gerora | La resolución o acuerdo de concesión se podrá modificar a solicitud de la beneficiaria cuando circunstancias |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badituzte, eta betiere, aldaketa horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera eta helburuak, aldaketak ez badie hirugarren pertsonen edo entitateen eskubideei kalterik egiten, eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkezten bada. | sobrevenidas e imprevisibles supongan una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que las mismas no desvirtúen la naturaleza y objetivos de la subvención concedida, que la modificación no dañe derechos de terceras personas o entidades que la solicitud y que la solicitud se presente antes de que concluya el plazo para la realización de actividad. |
| **19. Itzulketen araubidea** | **19. Régimen de reintegro** |
| Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa edo konturako ordainketa gisa jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli behar duela, zenbateko hori itzuli egin beharko da, dagokion berandutze-interesa gehituta. | En caso de que el órgano competente acuerde la obligación del beneficiario de reintegrar total o parcialmente el importe percibido en concepto de anticipo o pago a cuenta, dicho importe deberá devolverse incrementado con el interés de demora correspondiente. |
| Horri dagokionez, Tolosako Udalaren Dirulaguntza Orokorraren VI. kapituluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan, haren Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoa aplikatuko da. | A este respecto, será de aplicación lo dispuesto en el capítulo VI de la Ordenanza General de Subvenciones, el título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, su Reglamento (Real Decreto 887/2006, de 21 de julio), y demás normativa vigente. |
| **20. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea** | **20. Régimen de infracciones y sanciones** |
| Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere. | Sera de aplicación lo establecido en el capítulo VIII de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, así como lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable. |
| **21. Aplikatu beharreko araudia** | **21. Normativa aplicable** |
| Oinarri hauetan arautυtako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira: | Las subvenciones reguladas en las presentes bases se ajustarán a lo establecido en las siguientes disposiciones normativas: |
| - 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. | - Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.<br>- |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| - Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua. | - Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio. |
| - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua. | - Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres |
| - 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. | - Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi. |
| - 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. | - Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco<br>- |
| - Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra. | - Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa. |
| - 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. | - Plan Estratégico de Subvenciones, 2026-2028. |
| **I. ERANSKINA: Deialdia** | **ANEXO I: Convocatoria** |
| **1. Xedea** | **1. Objeto** |
| Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak. | El objeto de la presente convocatoria es dar a conocer las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, dirigidas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan la igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Tolosa. |
| **2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida** | **2. Crédito y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención** |
| Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa **hamar mila (10.000,00) eurokoa da,** Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 1400.481.01.231.60 (2026). | La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de **diez mil (10.000,00) euros,** con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa: 1400.481.01.231.60 (2026). |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| **3. Entitate onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua** | **3. Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias y forma de acreditarlos** |
| Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 4. artikuluan xedaturikoa izango da. | Será lo dispuesto en el artículo 4 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria. |
| **4. Eskaerak aurkezteko epea** | **4. Plazo de presentación de solicitudes** |
| Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. | El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |
| **5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa** | **5. Documentación que acompañar a la solicitud** |
| Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 9. artikuluan xedaturikoa izango da. | Será lo dispuesto en el artículo 9 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria. |
| **6. Balorazio irizpideak** | **6. Criterios de valoración** |
| Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 12. artikuluan xedaturikoa izango da. | Será lo dispuesto en el artículo 12 de las bases generales que se publican junto con esta convocatoria. |
| **7. Proiektuak egikaritzeko epea** | **7. Plazo de ejecución de los proyectos** |
| Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2027ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egingo dira. | Las actuaciones objeto de subvención se realizarán entre el 1 de enero al 31 de diciembre de 2027. |
| **8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak** | **8. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento** |
| Berdintasuna Sailak prozeduraren instrukzioa. | La instrucción del procedimiento será promovida por el Área de Igualdad. |
| Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda. | Corresponde a dicha área la valoración de las solicitudes mediante la emisión del correspondiente informe técnico. |
| Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan. | La propuesta de la concesión se elevará a la Comisión de Valoración para emitir su correspondiente informe. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:<br><br>Kontu-hartzailea edo teknikaria.<br>Saileko teknikaria.<br>Saileko zinegotzia.<br>Idazkaritza Saileko AOT bat. | Dicha Comisión de Valoración estará compuesta por los/las siguientes integrantes, garantizándose una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su composición, salvo justificación en contrario:<br><br>El/La interventor/a o el/la técnico/a.<br>El/La técnico/a del área.<br>El/La concejal/a del área.<br>Un/a TAG del Área de Secretaría. |
| Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. | El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los/las interesados/as en la forma que establezca la convocatoria, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones. |
| Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak ebatz dezan. | Posteriormente, para su resolución se dará traslado a Alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pudiese efectuar. |
| **9. Ebazteko eta argitaratzeko epea** | **9. Plazo de publicación y resolución** |
| Behin betiko ebazpena emateko eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. | El plazo máximo para resolver y publicar resolución definitiva es de seis meses, a contar desde la finalización del plazo para presentar las solicitudes. |
| **10. Dirulaguntza aldatzea** | **10. Modificación de la subvención** |
| Deialdi honetan argitaratzen diren oinarri orokorren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera. | De conformidad con lo establecido en el artículo 18 de las bases generales que se publican en esta convocatoria. |
| **11. Errekurtsoen araubidea** | **11. Régimen de recursos** |
| Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke: | La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos: |
| Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera. | Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |

ESKUc435a931-8ccd-47db-9b90-efd3967e128f

| | |
|---|---|
| Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da. | No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián. |
| Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da. | Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier momento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. |

BIGARRENA.- Erabakia dirulaguntzen datu-base nazionalean (BDSNen), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Ebazpen hauek finkoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke: Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

Goiuri Ezeiza Arandia

UDAL IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2026DO100010-Ebazpena/Decreto (Tolosako Udala) |
| --- | --- |

**Digitalki sinatua:**

**Sara Berasategui Fuertes**
**Udal idazkaria**
**Data:** 2026/03/16 15:00:38

**Digitalki sinatua:**

**Goiuri Ezeiza Arandia**
**Zinegotzi delegatua**
**Data:** 2026/03/16 15:08:31